



Idiazabalgo Udala



2011 ■
Idiazabalgo Udala

aurrekontuak



Idiazabalgo Udala

Kaixo herritar,
legegintzaldi honetako azken aurrekontuak
ere, legegintzaldi osoan bezala, aho batez
onartu ditugu.

Orri hauen bitartez aurrekontuen berri eman
eta zuen ekarpenak jasotzeko asmoz zuzen-
tzen gatzaizkizue. Aurrekontuak onartuta iza-
nagatik ez du esan nahi aldakorak ez direnik,
beraz urtean zehar normala da aurreikusi ga-
beko aldaketaxoren batzuk izatea.

Ondoren doazkizuen taulek eta zenbaki mul-
tzoek, herriak izango dituen diru sarrerak eta
gastuak aurreikusten lagunduko dizuete.

2011ko sarrera arruntak 2010 urtekoak bai-
no TXIKIAGOAK izango dira (2.600.000,- €
/ 2.900.000,-€).

Gastu arruntetan berriz igoera txiki bat
ematen da, zerbitzu maila egokia manten-
du aldera: 2.506.044,- € / 2.539.468,- €,
%1.33 gehiago.



Ondorengo sailetan ematen dira gas-tu arruntetako beherapen azpimarragarrienak:

- Gobernu saileko gastuak %8.6 gutxitzen dira.
- Haurreskolako gastuak %28.4, eraikuntza berriarekin iaz zeuden moduluen alokairua bukatu delako.
- Agenda 21-eko gastuetan %20a.
- Igerilekuan %13ko.
- Futbol zelaiaekotan, %23.5.
- Euskara sustapenean, %18.9.
- Garapen eta turismo jardueran (Gaztaren Interpretazio zentrua eta gazta eguna), %24.3.

Igoera nabarmenenak berriz honakoetan:

- Zor publikoak eragindakoak, %49 igotzen dira, mailegu berria hitzartu delako eta Diputazioari aurreko urteetako zorrak itzuli behar zaiolako.
- Hainbat ekintza sozialetarako bideraturiko laguntzak %25ean igotzen dira.

Inbertsioak. 2011-rako aurreikusten den inbertsio bakarra, Guraso Elkartean eszenatoki azpiko zerbitzuak berritzea: 48.500,- euro.

2011-ko aurrekontua ezaugarri berezia badu, eta hau Txomenarenako parkearen desjabetzaren ondoren, espero den sententziarena da. 1,5 milioi.

Txomenane parkea dagoen lursaila desjabetzeko tramitea orain 20 urte hasi zen. Udalak orain arte 340.000 € ordaindu ditu, baina gauzak orain arte bezala jarraitzen badute, baliteke beste 1,5 milioi € ordaindu beharra izatea aurten auzitegiek horrela erabakitzen badute behintzat. Zor honen zatirik handiena auzia konpontzeko pasa diren urteen interesak dira.

Diru kantitate hau ordaintzeko Kutxarekin iada hitzartu dugu prestamoa, aurretiaz aurreztutakoa Udaletxe berria eta Haurreskola berriaren obrak egiteko erabili baitira.

Aurrekontuei buruz argibide gehiago nahi bazenute, adierazi ezazue udaletxean, aurkezpen ekitaldi bat egiteko prest gaude-ta.

Gutxieneko informazio hau baliagarri izango delakoan, hona hemen 2011ko Aurrekontuko hainbat argibide.





SARRERAK

Udalaren diru sarrera arruntak (gutxi gora-behera urtero errepikatzen direnak, alegia) koadroan agertzen direnak dira: 2,6 milioi € guztira.

Kontribuzioak (IBI)	361.000
Autoen Zerga	200.000
Plusbaliak	19.000
Enpresa Jarduera Zerga	80.000
Eraikuntza Zergak	10.000
Zabor bilketa tasa	87.000
Kultur ekintza eta jarduerak	58.000
Eguneko Zentroko tasak	78.000
Etkez etxeko zerbitzuko tasak	14.000
Iberdrola-Telefonica-Euskaltel	40.000
Diputazioaren ekarpenak	1.545.000
Eusko Jaurlaritzak	55.000
Besteak	53.000
GUZTIRA:	2.600.000

GASTU ARRUNTAK

Gastu arrunt hauek ere gutxi gora-behera urtero errepikatzen direnak dira. Aipagarrienak hauek dira:

Pertsonalaren gastua: 676.462,- €.

Udalak, 12 langile finko eta Alkatearen soldatak ordaintzen ditu. Beste 8 langilek ere jarduten dute urtean zehar Udalarentzat lanean, batzuek urte osoan eta beste batzuk aldizka. 2011an Kultur Teknikariak jarraitzea aurreikusten da, eta gainera ludoteka eta gazteguneko langileak.

Hauek dira langile fijoak: 4 idazkaritzan, 2 obra taldean, 4 garbitzaile, gizarte langilea eta liburutegikoa.

Azpimarratu behar da langileen soldatak jeitsi egin direla.

Gastu arruntak: 1.523.450,- €.

Hemen eguneroko eginkizunei, ohizkoei, aurre egiteko behar diren baliabideen kopurua jasotzen da. Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztien kostu arrunta.

Udalak 1.5 milioi euroko mailegua hartu du Gipuzkoako Kutxatik eta hemendik aurrera mailegu honek eragindako zorra itzultzen hasi beharko alde batetik eta bestetik 2009an Diputazioak aurreratutako zati bat itzuli behar da 2011-2013 urteetan, 102.000,- euroko urteko. Zorren interes eta amortizazio konzeptuan 123.000,- euro gastatuko dira.

Argibide gehiago eman nahian beste era batetara sailkatuko ditugu gastu arrunt hauek:

ZERBITZUEN ARABERA

Administrazio orokorra eta gobernua	392.000
Gizarte Ongizate Zerbitzua	85.000
Etxez Etxeko Zerbitzua	65.000
Eguneko zentroa	346.000
Enplegu Sustapena	40.000
Osasun zentroa	6.000
Haurreskola	63.000
Herri Eskola	228.000
Argiteri publikoa	70.000
Parke eta lorategiak	60.000
Zabor bilketa zerbitzua	95.000
Kanposantua	7.000
Agenda 21: Ingurunea	20.000
Obratako taldea	115.000
Kultur etxea / Kultur eta kirol ekintzak	308.000
Euskara	43.000
Kiroldegia	11.000
Igerilekua	40.000
Pilotalekua	14.000
Futbol zelaia	13.000
Jaietako gastuak	90.000
Jubilatuuen Elkarte – Pilarrenea	26.000
Kamino - Kale	45.500
Nekazaritza – Baserriak	67.500
Gazta komisioa	53.000
Zorrak	123.000
Besteak	114.000

GUZTIRA: 2.540.000

Beste entitate eta taldeei ematen zaizkien diru-laguntzak edo ekarpen garrantzitsuenak ondoko koadroan jasotzen dira:

TRANSFERENTZIAK

Goieki	17.500
Goierriko Eskola	17.500
Goimen	6.500
Herri eskolako Guraso Elkarteari	18.000
Herriko kultur eta kirol taldeei	56.000
Herrikoak ez diren talde/ekimenei	20.000
Gizarte Ongizateko diru laguntzak	26.000
Erakunde ez gubernamentalak	26.000
Artzai Gazta Elkarte	18.000
Euskalduntze eta alfabetatzeko	3.000
Beste batzuk	7.925

GUZTIRA: 216.425



INBERTSIOAK

Guraso Elkarte 48.000,- €.

Txomenarena: 1.500.000,- €.
(hau maileguaren bidez.)





azio or
ngizate Zerbitz
xeko Zerbitzua
ko zentroa
gu Sustapena
sun zentroa
reskola
ri Eskola
giteri publikoa
arke eta lorategiak
Zabor bilketa zerbitzua
Kanposantua
Agenda 21: Ingurunea
Obratako taldea
Kultur etxea / Kultur eta kirol ekintza
Euskara
Kiroldegia, Igerilekua
Pilotalekua
Futbol zelaia
tako gastuak
Elkarte — Pilarreneak